



Abaitualdekoa etxebizitza

Aldacrak: Abaituarnaga
Ahozkoa: Arna

“... la casa de Abaitu-arnaga radicante en dicho barrio de San Lorenzo... es de una vivienda y consta de piso llano, alto y desban o camarote, ocupa una planta solar de doscientos sesenta y dos metros incluso lo que ocupa su horno y tejabanas...”
DJE 4/86 or. (1878)



43° 10' 56"

2° 34' 28"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Abaitua (**Ikus Abaitua**) baserriari lotuta agertzen zaigu eraikin hau. 1825eko polizia-errol-dan *Arnaga de Abaitua* izena aurkitzen dugu, eta horrela jasoko da dokumentazioan XX. mendera arte: *Abaitua-Arnaga* (1859ko izendegia), *Abaitua-arnaga* (1878, DJE, 4/ 86. or.) eta *Abaitua arnaga* (1967, BUA, CE), berriz, azken erroldan. Auzotarren artean, *Arna* moduan ezagutzen da. Dena den, ikerketa toponimikoaren harira, *arnaga* eta *akzesoria* moduan agertzen diren eraikin guztiak *-aldekoa* izen-osagaiaren bidez identifikatzea erabaki da, eta hortik datorkigu *Abaitualdekoa*.

Etxe bihurtutako arnaga da, eta oraindik kontserbatzen ditu eraikin originalaren

kanpoko eskailerak eta leiho eta ateen ertzetako jatorrizko harlanduak ere. Bi isurkiko teiltuaren babesean etxe simplea ikus daiteke, bi pisurekin eta ganbararekin. Sarrerako atekak ditu fatxada estu bien erdian, eta alboetan, berriz, leihoak dauzka, arnagaren eskailerak zeuden aldean izan ezik. Azken horretan goiko atea balkoi bihurtu dute, eta zoruak aterpe funtzioa ere betetzen du. Harlangaitzezko hormak ditu, eta harlandua dauka ohiko lekuetan, batik bat XX. mende amaieran eraberritu zutenean irekitako leiho berrietan. Eraikina zaharragoa da, arnagako ateburuko inskripzioak argi uzten duen moduan: “ANO DE 1696”.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian, lehenengo osagaia auzoaren izena izaten delako. Sarritan auzo izena hasieran etxe baten izena zen. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitu zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortu zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera dute izenean. Hori bai, ahoz gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan alde hitza dugu Abaitu zaharraren ondokoa dela adierazteko. Durangaldean hitz hau “auzo” moduan erabilia izan da eta Aldegoien-a dugu, esaterako, Mañarian.